

# Noaia!!

www.noaia.com



“Nömadak Tx” ikuskizuna  
Oiardo kiroldegian



Eskubaloi taldeko jubenil mailako neskak

# Final handiaren atarian



# Rafa

## iturgindegia



- Kristaldegiko lanak
- Kristalezko mahaiak
- Segurtasun beirak
- Kristalezko luzeroak
- Klimatit

astelehenetik ostiralera: 10:30 - 13:30  
larunbatetan: 10:00 - 13:00

Bordaberri kalea 1, 1. behea • ☎ 943 36 80 04

Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

“..Linfoma No-Hodgkin pairatzeko arriskua 2,3 aldiz handiagoa da Erraustegia kokatzen deneko 10 Km inguruan.”

Iturria: Epidemiologia, Bioestatistika eta Osasun Publikoaren Unibertsitatea, Besançon(Frantzia). Uztaila 2003

Osasun-tekniko batzordea



PREST  
**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA  
BIZITZEKO  
**PREST!**



# ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna AULA MAGNA **1. etxea**  
ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 14 - 18:00** osteguna AULA MAGNA  
OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

**MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna AULA MAGNA  
IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 9 - 11:00** larunbata AULA MAGNA **1. etxea**  
ESKORITAZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

etorriko zarela jakinarazi!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Albistea iruditan !!

# Eguraldiak babestu zuen Andatza Eguna

Zeruari oskarbitzea kostatu zuten, baina ez zen oztopoa izan maiatzeko lehen igandeko usadioari jarraiki, Andatzara igo-tzeko. Goizean goizetik hasi eta eguerdi partera arte, bidean gora edo behera zihoran jende mugimendua nabaria zen, Andatza Eguna zela eta.

Mendi buelta horretako geraleku nagusia, aterpe pareak izan zen. Andatza mendi taldeko kideek jan edana prest zuten, jendea bertaratu ahala zerbitzatzeko. Hondakinen kudeaketan Usurbilen izandako aldaketa ere nabari zen Andatzean. Hondakinak gaika biltzeko ontziak jarri zituzten eta.



ANDATZAKO ATERPE PAREAN BILDU ZIREN ANDATZARA IGO-TAKOAK.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com  
Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com  
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com  
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. OR.

ESKUBALOI NESKA TALDEA \_\_\_\_\_ 10. OR.

OREKA TX TALDEAREN KONTZERTUA \_\_\_\_\_ 12. OR.

JAI EGITARAUAREN DISEINU-LEHIAKETA \_\_\_\_\_ 14. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

**LATAILLADE**

**ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021





IDOIA TORREGARAI

## Ama hasiberriaren balada (... eta III)

**B**ai, berriro nator amatasun kontuekin. Ez neukan asmorik, baina, hainbat amek testu hauekin oso ondo pasa dutela esan didate (eskerrik asko) eta aitzakia hori hartuta, azken bat idaztera ausartu naiz. Hona ba ama hasiberri honen azken xeblekeriak (idatzitakoak behintzat):

- Etxearen antolaketa. Dagoeneko ahaztu zait etxea jasota eta txukun-txukun edukitzea zer den. Azken hilabete hauetan etxeak oesteko herriya gehiago ematen du, izan ere, dagoeneko pasiloetako hauts pelotak gure paisajearen parte dira. Edozein momentutan sheriffa agertuko zaitenaren inpresioa daukat. Bestetik, lekuri harrigarrietan hankagorriaren arrastoa topatzen duzu: txupete bat sofa-aren azpian, galtzerdi txikia CDak gordetzen dituzun apalean, eta duela bi eguneko: sonajeru bat FRIGORIFIKUA-

REN BARRUAN! Komentariorik gabe.

- Ariketa fisikoa. Hankagorriya aurrera dijuan heinean, zure egoera fisikoa hobetuz joan behar duzu derrigorrez. Alde batetik, pisua hartzen doan eran, komenigarria da Perurenatarren ariketa-sistema jarraitzea, bereziki esku bakarrek altxaldi modalitatean (libre duzun eskua oesteko hauts pilotak garbitzeko erabili behar duzu, adibidez). Bestetik, gerri-ingurua indartzea ezinbestekoa da zazpi hilabeteetatik aurrera (gutxigorabehera); garai horretan eskuetan hartzen duten guztia (ahotik pasa ondoren babaz beteta dagoena, noski) lurrera botatzen dute eta oso erraz egin ditzakezu egunero 50 jasoaldi. Serio pentsatzen nabil Santixabeletako lokotx-karreraren parte hartzea.

- Eta abar...

Eta hau hasiera bakarrik ez da...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Hemeroteka!

**J**ose Luis Elkorro, 74 urte, berriro atxilotu eta espetxeratu dute, egunkari bateko administrazio kontseiluko presidente zenez -eta ez beste ezergatik- ETako kide zela ebatzi baitzuen Auzitegi Nazionalak, eta berretsi orain Auzitegi Gorenak. Egunkari bat, Egin, argitaratzen zuen enpresako buru izateak eraman du kartzelara, beste garai batean alderdi politiko bateko zuzendaritzako kide izateak eraman zuen bezala. 36 lagun dira, guztira, 18/98 auziagatik kartzelatutakoak, Auzitegi Gorenaren behin betiko erabakiz, azken epaiaren berri oraindik eman ez badu ere. Eskubide zibil eta politikoen aurkako 36 atentatu dira, 36 horietatik inori ere ez baitiote indarkeriarekin zerikusirik duen ezer leporatzen, lan politikoarekin edota

## 18/98ko biktimak

kazetaritzarekin zerikusia duten jarduna baizik. Indarkeria bidegabeba, aitzitik, 36 euskal herritar hauek kartzelara bidali dituenak baliatu du, besteak beste oraindik libre zeudenen etxeetara -edo ospitalera, Juan Pablo Dieguez ebakuntza egin berriaren kasuan- goizaldean guardia zibil armatuak bidalita, gaizkileak balira bezala Martuteneko edo Basauriko espetxera eramateko, gerora Espainiako eskalo zein kartzelatara eramateko, Euskal Herritik eskalo zenbat kilometrora.

Gaitzerdi, 36 beharrean 45 ez diren-an. Ekin ataleko Natale Landa zigorrik gabe aske gelditu da, eta Joxemi Zumalabe Fundazioko bederatzia auzipetuetatik zortzi ere bai -Carlos Trenorrek espetxean jarraitzen du, Orain atalean ere auzipetu eta zigortu zuten-.

Errugabe direla erabaki du Auzitegi Gorenak, ETarekin zerikusirik ez dutela, hain zuzen ere ETako kide edo laguntzaile izateagatik hainbat hilabetez giltzapean eduki eta gero, Espainiako auzitegiek behin-behineko espetxeratzea erabiltzen duten modu bidegabearen eta neurrigabearen seinale. Iñaki O'Sheak 24 hilabete egin ditu kartzelan, Mikel Aznarrek 19, Natale Landak 16, Sabino Ormazabalek 8, Mikel Zuluagak 7 eta Olatz Altunak 6 eta erdi; Fernando Olalde bi aldiz atxilotu dute, eta Mario Zubiaga nahiz Alberto Frias, behin. Nahastu egin ziren. Barkatu eragozpenak (...).

Imanol Murua Uri, maiatzaren 2an Berria egunkarian

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
USURBILGO ATARIA

## Aurrekontu proiektua behin betirako onartu da

**J**endaurrean ikusgai egon den epean aurkeztu ziren erreklamazioei erantzunda, gobernu taldearen babesarekin Udalak behin betirako onartu ditu urte honetarako aurrekontuak.

Aralar eta PSE-EEko zinegotziek abstentziora jo zuten apirilaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Bi alderdietako ordezkariak lehendik erakutsitako jarrera mantentzearen alde agertu ziren. Joxe Ramon Furundarenak zioenez, "aldaketekin geure ikuspegia ez da aldatzen". Amaya Goyaranek ere, lehendik alde edo aurka bozkatu zuen guztia bere horretan mantentzen zuela adierazi zuen.

EA eta EAJ-PNVko udal ordezkariak aldiz aurka bozkatu zuten. Osoko bilkuran aurkeztu zen testua ahotan hartu zuen Luismari Ormaetxeak. Bere esanetan, "ez du jasotzen bere osotasunean Ogasun Batzordean hitz egin eta eztabaidatutakoa". Aurrekontu proposamenaren aurka bozkatzeko bigarren arrazoi gisa, erreklamazioei emandako erantzuna izan zen, multzoka bozkatu zirelako. EAJ-



ARALAR ETA PSE-EE ABSTENTZIOA BOZKATU ZUTEN. EA ETA EAJ-PNV AURKA AZALDU ZIREN.

PNVtik Iñaki Illarramendik bat egin zuen Ormaetxeak esandakoarekin. "Ekarpenak banaka bozkatu behar dira", adierazi zuen, batzuetan ados besteetan aurka egon zitekeela argudiatuta.

### Hasierakoa, egokituta

Udal aurrekontuak alegatzeko epearen barruan, aurkeztu diren erreklamazioetatik lau partzialki onartu dira. Beraz, hasieraz onartutako aurrekontua egokitu dute. Aurrekontuetan txertatua dago bestalde, Usurbil Atez Ate SA sozietate publikoaren aurrekontua ere.

## Eguneko Zentroaren kudeaketa kontratua urtebetez luzatu da

**A**zken osoko ohiko bilkuran Aho batez onartu zuten udal ordezkariak Udalaren eta Gestión de Servicios Residenciales S.Coop. enpresaren arteko kontratu luzapena. Aipatu adostasunak Eguneko Zentroa urtebete gehiagoz kudeatzen jarraitzea ahalbidetuko du. Luzapenak honako hasiera eta amaiera datak ditu: 2008ko azaroaren 17tik 2009ko azaroaren 16ra arte. Hitzarmen berean, erabiltzaile bakoitzak bere plazagatik urte honetan ordaindu beharko duen kuota ere zehazten da. Astelehenetik ostiralera, 45,98 euro eta larunbat zein igandeetan 48,35 euro. Aipatu bezalaxe, prezioak, pertsona, plaza eta egun bakoitzeko dira.



## Uztailetik aurrera, zabor bilketa zerbitzuko tarifa berriak

**H**ondakin bilketa zerbitzuen truke kobratuko diren tarifa berriak behin betirako onartu ziren azken osoko ohiko bilkuran. Gobernu taldearekin batera, PSE-EE eta Aralarko zinegotziek babestu zuten proposamena. EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariak aldiz, aurka bozkatu zuten.

Aldaketa igaro den martxoaren 16az geroztik abian den hondakinak atez ate biltzeko sistema berriak eragin du. Orditik etxebizitza guztietan zabor bilketa zerbitzuarekiko dagoen beharra ez baita berdina. Hain zuzen, zati organikoa etxean bertan konpostatzen duten hiriguneko zein landa eremuko herritarrei %40-ko hobaria aplikatuko zaie tasetan, bilketa zerbitzua astean lautan baino ez dutelako baliatuko. Gainerakoek, astean zazpi egunetan.

ETXEBIZITZAK	Zerbitzu kopurua asteko	Tarifa eurotan 3 hileko
Hiriguneko etxebizitzak	7	19,00
Autokonpostatzen duten etxebizitzak	4	11,40
Landa eremuko etxebizitzak	7	13,30
Autokonpostatzen duten landa eremuko etxebizitzak	4	07,98

### Merkataritzan eta industrian ere tarifa berriak

Udalbatzak behin betirako onartu dituen tarifak hiru ataletan bereizten dira; bizilekuak, merkatal guneak eta industria guneak. Tasa berriak uztailea hasieran jarriko dira indarrean.

AGINAGA

AITOR HELETA

## 30.000 behar dira



**D**uela hilabete pasatxo hasi zen atez ateko bilketa eta emaitzak hor daude. Birziklatze tasa %30 inguru izatetik %76 izatera pasa da eta hori hasiera besterik ez da.

Usurbilek berak egin dezake baina benetak emaitzak lortzeko, horrelako ekimena inguruko herri guztietara hedatu behar da. Aldarrikapen horrekin egin zen Donostian manifestaldia apirilaren 25ean.

Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak martxan jarri du sinadura bilketa bat prestatu duten Lege Egitasmoa Eusko Legebiltzarrean aurrera eramateko. Bertan ondorengo puntuak jasotzen dira:

-Hondakinen ustiapena ez da inolaz ere errausketa izango.

-Udal-hondakinen gaikako bilketa, non osagai birziklagarri guztiak berreskuratzea duen helburu.

-Materia organikoa biltzeaz aparte, konpost bihurtzeko derrigortasuna.

-Herri guztietan atez ateko bilketa martxan jartzea.



Horrela kopuru handiago eta kalitate handiagokoa bildu ahal izango da.

Honengatik guztiatik, oso garrantzitsua da denok sinatzea eta Eusko Legebiltzarrera lege proposamen hau eramatea. Ea ba sinatu ez duzuenok ondorengo egunotako ekitaldian sinatzera animatzen zaren.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Udarik bai?



**B**adakit kalean ere ez dela beste kontu-rik entzuten baina oraintxe oso aspergarria jarrita dago eguraldia. Eguna joan eta eguna etorri, euria edo bestela zerua grisa, eguzkirik apenas ez dugu ikusten. Maiatzean sartu gara eta ez dago ez udaberri kutsurik ez ezer.

Eta uda iristen denean ez dakit zer gertatuko den, edo ikaragarritzko beroa egingo du (orain arte egin ez duena) edo honelaxe jarraituko dugu, gris-gris.

Igandean Andatza Eguna ospatu zen eta egun honetan behintzat eguraldia portatu zen, eskerrak! Jendea gerturatu omen zen bertara eta giro ederra egon omen zen ("omen" diot ni ez nintzelako igo, lotsarik ere ez, eta bertaratu zirenak hala esan zidatelako).

Egia esan poza ematen du urtez urte antolatzen diren ekitaldi hauetan jendeak parte hartzen jarraitzea.

Eta maiatzean nola utzi aipatu gabe hilaren 24an ospatuko den Sagardo Eguna. Nik uste usurbildar gehienok hasiak gaudela "Laster Sagardo Eguna!", "Ea eguraldi ona egiten duen!" eta honelako kontuekin! Ea egia den!

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## %28tik %76ra igo gara

**J**aso berri ditugu atez-ateko zabor bilketa sistemaren inguruko lehen hila-beteko datuak. Atxegalden parte hartzea handia izan denez, beharrezko iruditu zait honako datu hauek plazaratzea.

Usurbilen gaikako zabor bilketaren tasa %28tik %76ra igo da atez-ateko sistemari esker. Zabortegira botatzen genuen erreusa berriz, %72tik %24ra jaitsi dugu. Datu hauek orain arteko sistema



(bosgarren kontenedore-arekin) mantentzen duten herriekin konparatzen baditugu, gaikako zabor bilketa, kasu onenean, %35era iritsi dela jakin berri dugu. (Informazio gehiago [www.usurbil.net/](http://www.usurbil.net/) atezate web orrialdean).

Hau hasiera besterik ez da, bidaia luzea den arren helmugara iritsiko garela ziur egon.





## KALEZAR

MADDI GALBETE

## Pixkanaka, azkarregi



**I**a konturatu gabe, badoaz, pixkanaka (edo azkarregi) egunak aurrera, eta ondoren hilabeteak, eta ondoren urteak.

Momentu batean atzera begira jartzen gara bat-batean, eta egunerokotasunean ikusten ez ditugun aldaketak ikusten ditugu orduan, “duela urte batzuk lotsatiagoa nintzen” edo “lehen pazientzia handiagoa nuen” bezalako esaldiak esanez gure buruari.

Zeren bai, ikusten ez dugun arren aldatzen goaz, pertsona hobeak (edo txarragoak) egiten joaten gara eta bizitzak ematen digunaz gozaten ikasten dugu, egunetik egunera.

Egoera politikak, eta okerragoak bizitzen ditugu, gauza berriak probatzen goaz, eta zoriontasuna deituriko zerbaiten bila gabiltza beti. Zoriontasuna, edo horrelako zerbait.

Beti nahi dugu gehiago eta gehiagoren bila gabiltza beti. Behar eta nahi desberdinekin egiten dugu topo etapa desberdinetan, eta berauek asetzen saiatzen gara, aurrez aipatutako zoriontasun goren hori noizbait topatuko dugulakoan. Eta bai, topatzen dugu, ondo topatu gainera, zoriontsuak garela esan dezakegu, momentu batzuetan hitzak zentzua galdu dezakeen arren.

Hala ere, horrela doaz, pixkanaka (edo azkarregi), egunak



aurrera, eta urteak betetzen ditugunean bakarrik (nik behintzat) erreparatzen diet bizitzaren aldaketei, eta orduan egiten dut urte osoan egin gabeko hausnarketa, edo urte osoan zehar, ia konturatu gabe, buruari egiten diodan hausnarketa.

Oraingoan 20 izan dira, baina hala ere, ispiluaren aurrean begiratzen naizenean, izan nintzen ume beldurti hura ikus dezaket, denborarekin hezten eta hazten joan dena. Urteek osatzen gaituztelako. Pixkanaka, azkarregi.

## KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Iritsi da



**I**ritsi da itxaropenaren garaia. Iritsi da elkarrizketaren garaia. Iritsi da batasunaren garaia. Iritsi da demokraziarena. Iritsi... borrokarik gabeko garaiak, denak elkarturik izango garenak. Iritsi da elkarrizketaren garaia, non arma guztiak desegin eta hitza izango baiten armarik zorrotzena, bortitzena eta latzena. Iritsi da, bozgoraz edozeinek edozer esan eta ondorioetan pentsatzeko ardurarik gabe bizi ahal izateko garaia. Hitza. Hainbatetan eta hainbes-tetan balio gabetutako hitza. Sekula preziorik ezarri ez dieten hitza. Orain legala eta orain ilegal den hitza. Nahi eran erabiltzen duten hitza.

Iritsi da denon artean gure herrialdea eraikitzeko ordua.

Iritsi da, berriz ere, seme-alabak gaztelaniaz matrikulatu ahal izateko aukera. Iritsi da hainbat urtetan euskal hizkuntza eta kulturaren mesedetan egindako lan oro errausteko unea. Eraikitakoa birrintzekoa. Atzeraka egitekoa.

Iritsi da bakea aurkitzeko helburua (jakin gabe, bakea ez dela helburua, bide bat baino). Iritsi da bizkartzainei eta gainerako indar polizial eta judizialei, une batetik bestera (eman diezaiegun epe labur bat, bederen) ERE aplikatuko zaien unea. Iritsi da Historia. Iritsi da Askatasuna.

Eta Euskadik zer? Zorionak, Francisco Lopez.

Baina ahalik eta denbora gutxienerako opa dizugu...

## ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Zubieta mapan

**E**gunkarietan irakurri eta Herri Batzarrekoek ere hala baieztatu didate: Foru Aldundiak bi bus linea berri jarriko ditu martxan Astigarraga eta Usurbil artean eta, bejondeiola!, Zubieta kontuan hartu dute, Zubieta mapan sartu dute! Bi lineok Usurbil-Zubieta-Lasarte-Oria-Urnieta eta Astigarraga-Hernani-Lasarte-Oria-Usurbil ibilbideak izango dituzte baina etorkizunean bateratzeko asmoa omen dute.

Bus zerbitzu horrekin eta Usurbilgo Udalak martxan jarritako taxi-busarekin garraio publikoaren mapamundian kokatu gaituzte eta aurrerantzean, adibidez, Renferen sarerako lotura eskuragarriago edukiko dugu, baita Hernani eta Astigarragako industrialdeak ere.

Beste mapa batzuetan ere sartu nahi nuke nik, atez ateko zabor bilketarenean, adibidez, baina Donostiako Udala proiektu hau ere saboteatzen ari omen da eta, zer egingo diogu, bada, gurera iparretik euria, hotza eta utzieria. Eta negua luze joan da, luzeegi.

Eskerrak isobara-mapa egoskorra eguzki printza bakan batzuetarako tartea ere uzten hasia den; zorionak, Olatz, datorren udaberriak ahantzaraziko ahal digu pasatako negu gorria...



# Lan Osasunerako Nazioarteko Egunari lotutako mozioa onartu zen azken plenoan

**O**soko ohiko bilkura burutu zen egun bera, apirilaren 28a, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna ere izan zen. Udalak aipatu gaiari lotutako mozioa onartu zuen.

Gertatu ohi diren lan istripuak salatzaren ditu testuak. Duela bi urte 125 izan ziren zendu ziren langileak, iaz 112 eta aurten jada, gutxienez hogei. Mozioan onartezintzat jotzen dira datuok, gaineratzen denez, "arazo sozial handi baten aurrean aurkitzen gara". Haren oinarrietara joateko beharra azpimarratzen da, erroetan, lan istripuek bi eragile nagusi dituztela zehaztuz; edozeren gainetik enpresarietatekin ateratzeko duten grina batetik, eta bestetik, Euskal Herriak duen Lan Harremanetarako Esparru propio falta.

## Istripu larririk emango balitz, Udala herri-akusatzaile

Azken bilkuran aurrera atera zen mozioaren arabera, udalerrian lan istripu larririk gertatu eta bide judiciala zabaltzen bada, Udala herri-akusazio gisa aurkeztera konprometitzen da. Baita gertatutakoa argitzeko bitarteko guztiak jartzera ere; jazoera izan den enpresako zuzendaritzarekin bil-tzea adibidez.

Gainera, Udalak lan arriskuen prebentzio alorreratik zigortu duten enpresaren zerbitzurik ez du kontratatuko, onartutako testuaren arabera. Lan istripuen arazoari aurre egiteko



DUELA BI URTE, 125 IZAN ZIREN ISTRIPUZ HILDAKO LANGILEAK EUSKAL HERRIAN. IAZ, 112. MOZIOAN ONARTEZINTZAT JOTZEN DIRA DATUOK.

lan harreman eta prebentzio eredu publiko, unibertsal, kalitatezko eta parte hartzailea aldarrikatzen du. Apirilaren 28an antolatuta zeuden mobilizazioekiko atxikimendua erakusten zuen mozioak.

Testuaren alde bozkatu zuten, gobernu taldeak eta Aralarrek, aurka EAJ-PNVko ordezkariak, eta PSE-EEko udal ordezkaria abstenitu egin zen. EAko udal ordezkariak ez zeuden udalbatza aretoan, mozioa bozkatu zen unean.

## EAKoak planto egin eta udalbatza-plenotik joan ziren

Eusko Alkartasunaren webgunean, [www.eausurbil.net](http://www.eausurbil.net), honela argudiatu zuten euren ausentzia: "Mozio horren aurrean EAK bere osotasunezko

zuzenketa baten berri eman zuen Batzarra ospatu baino lehen, 24 orduko aurrerapenarekin, ezarria dagoen bezala, zehazki 14:45ean. Udal Batzarra hurrengo eguneko 18:00etan hasten zen.

Alkateak, jauntxokeri arbitrario ekintza medio, osoko zuzenketa eztabaida eta bozka debekatu zuen, esanez zuzenketa horiek Udal Batzarra ospatzen den egunaren bezperan aurkeztu behar zirela, 14:30ak baino lehen.

Honen aurrean, protesta gisa, EAko zinegotziek planto egitea erabaki zuten eta Batzarra utzi zuten".

Alkateak, udalbatza plenoan bertan, ukatu egin zituen EAren argudioak.

EAK bozkatu nahi zuen mozioa euren webgunean dago ikusgai.

**ERRAZKIN**  
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

**JOSUE**  
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA**  
eta  
**PINTURA**

Juan Jose enca. 6 Kalezar  
Telf: 606 37 21 05

**BORDATXO**  
*edaritegia*

**PINTXO BEREZIAK**

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**



100% KOTOIA  
100% COTIGM  
NATURE WEAR

Orain Alkartasuna baserritarren kooperatiban erosi ditzakezu!

ERRAUSKETARK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK

ALKARTASUNA  
Udaltzako Baserritarren Kooperatiba

**AZKONOBETA**  
LAN FORESTALAK

sasi garbiketa, hesi lanak, landatzea,  
inausketa, mugarriztatzea, mozketak,  
eta mendiko edozein lan mota.

656 720 607 • 943 694 554  
azkonobieta@hotmail.com

USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

Erdi eta goi mailako zikloak  
A eta D Ereduak

[www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com)

Administrazioa    Elektrizitate teknika    Faktoria mekanika    Energia berenagarria

**Maiatzak 9 eta 16  
ATE IREKIAK**

943 36 46 00

# Final handiaren atarian

## Nesken eskubaloitako taldeak Espainiako azken fasea jokatuko du Zarautzen

**P**ozik eta sinetsi ezinik. Ez zitzaien bururatu ere egiten, honaino ailegatuko zirenik. Baina taldeko entrenatzaileak dioen bezala, lan eginda guztia posible da. Eskubaloitako jubenil mailako nesken taldea, estatuko zortzi talde onenen artean sailkatu eta gero, amaiera fasea jokatuko dute maiatzaren 6tik 10era bitarte, Zarautzen.

**NOAUA!** Zortzi onenen artean, final handira ailegatzear... Zer giro dago zuen artean?

**Nerea Agudo.** Egia esan, aurten kristoren maila eman dute eta oso pozik gaude.

**N.** Noiztik aurrera argi ikusi zenuten, aurten baietz, posible izango zela?

**N. A.** Jubenil mailako bigarren urteko taldea izanda, berez iaz baino aukera gehiago genituen. Baina aurtengo liga askoz gogorragoa izan da, Euskal Ligan hasi baikara. Teknikoki eta fisikoki exigentzia maila altuagoa izan da. Gehiago prestatu garela uste dut. Basauriri erraz irabazi ostean, orduantxe hasi ginen pentsatzen. Fase finalean sartu baino hiru aste lehenago, neskekin hitz egin nuen, Granollersera goazelako ekainean eta hortan zeuden pentsatzen. Amaiera fasea urruti ikusi zuten.

### NEREA AGUDO

“Une onean gaude eta, garrantzitsuena, lesionaturik gabe”

**N.** Entrenatzaile lanetan zabiltzate-nok, jokalekutik kanpo egon arren, zuek nola bizi duzue une hau?

**N. A.** Barruan eta kanpoan bizi dut, baina barruan egotea nahiago nuke. Aurten helburu batzuk finkatu nizkion neure buruari. Orain, lortu direla eta jokalaria batzuk zituzten akats txikiak



EGUN HAUETAN AZTERKETAK DITUZTE BAINA MAILA TXUKUNA EMATEN SAIATUKO DIRA JUBENIL MAILAKO NESKAK.

gainditzearekin batera, kirolari eta pertsona bezala heltzen doazela ikusteak kristoren poza ematen du.

**N.** Oraindik onena etortzeke. Datorrenaren aurreikuspenik egiterik bai?

**N. A.** Ez dakit galdu edo irabaziko dugun, baina irabazi nahi dugunak borrokatu beharko du. Une onean gaude, eta garrantzitsuena, lesionaturik gabe. Hemen guk ez dugu ezer galtzeko, irabazteko baizik.

**N.** Denboraldiko azken txanpan, fase finala jokatzea abantaila edo desabantaila izan liteke?

**N. A.** Jokalari gutxi ditugu. Zarautzek adibidez, 36 fitxa ditu jubenil mailan. Guk hamabi eta bat denboraldi hasieratik lesionatuta, jokatu gabe dago. Hamaika beraz. Halere, lesioak ez ditugu guztiak kolpera izan. Eta une honetan denak indarberrituta daude.

**N.** Iazko denboraldiak aurtengoa hobea izateko lagungarria izan zaizue?

**N. A.** Bai. Iaz, jubenil mailan berriki ginen. Jenderik ez aulkian, sufritzen. Nahi eta ezin hori zaila da eramaten. Aurten, horrek gogorragoak izatea eragin digu, guregan konfiantza gehiago dugu.

### Sailkatzen badira, finala igandean jokatuko dute

**NOAUA!** Hiru partida, hiru aurkari ezagunekin?

**Nerea Agudo.** Bi ez ditugu ezagutzen. Elcherengatik erreferentzia apur bat gehiago dugu. Dos Hermanasekin berdingu genuen, haren bideoa ere badugu. Partida horretaz asko hitz egin dugu. Porriñotaz, kristoren taldea dela dakigu.

**N.** Igandera ailegatuko bazinate...

**N. A.** Ez dakit. Buruak ez dit horretarako ematen. Beren esperientzia bizi-tzea nahiko nuke. Niri eskubaloiak asko eman dit, pixka bat haiei ere eman diete. Bizitzen baldin baduzu, magia da. Larunbatean jolastearekin izugarri konformatuko nintzateke. Eta igandean jolastuko bagenu, ez dakit Zarautzeko hondartzan bukatuko genukeen edo Usurbilgo errotondan dantzatzeko. Haien esperientzia izan dadila, ez dezatela sufritu eta galtzen badugu ere normal eraman dezatela. Asteburuan jolastea, akabera izugarria izango litzateke. Merezia dute zalantzarik gabe.



# “Behin ere ez da hau gertatu, zortzi onenen artean gaude”

**NOAUA!** Halako hitzordu garrantzitsuen bezperatan, entrenamendu saioak ere aldatu ohi dira?

**Nerea Agudo.** Askok aldatzen dira. Baina Ligan zehar ere. Zarautzen aurka jokatu behar badugu adibidez, aste hori mugitua izaten da. Kristoren ilusioa dute, baina ez egina dutela pentsatzen dutelako. Guztiz kontrakoa. Pasa den astearteko entrenamendu saioetan, joko batzuk proposatu nizkien. Ez zuten nahi. Prestatzen jarraitu nahi zuten. Lana egiten dute. Hitzordu hau dugulako, aste batzuk atera gabe daramatzate. Nik esaten diet, dagoena dago, zerbait lortu nahi baduzue, lan egin beharra dago.

**N. Orain zuetaz inoiz baino gehiago hitz egingo da.**

**N. A.** Bost urte daramatzagu. Eta tristea da baina irabazten hasi arte, ez zegoela ezer zirudien. Tristea zen, gure partidak hogeit hamar pertsona ikusten egotea. Aurten, eskerrak eman jendeari ikustera etorri baita. Jendeari esan, nesketan ere eskubaloia existitzen dela, eta probatzera animatzeko, oso polita baita. Etor

daitezela, ikusi edo entrenatzera.

**N. Atzetik jokalarik gehiago badatoz?**

**N. A.** Orain uste dut, etenaldi txiki bat datorrela. Penaz esaten dut. Baina infantil eta alebin mailan jokalaririk onak datozela dakit. Ia gorantz jarraitzen duten. Euskal Ligara igo ezinik egon gara bi urtez, jubenil mailako talderik ez genuelako. Ia animatzen diren. Usurbilek historia luzea du eskubaloian eta hau ezin da galdu. Lehen ere egon zen etenaldi bat, neronek kanpora joan behar izan nuen jokatzera.

**N. Zuenak bezalako lorpenek eskubaloia bultzatzen dezakete?**

**N. A.** Lehengoan iloba ikastolara eramanez nuen. Aita batek esan zidan, bere alabak betidanik esaten ziola lehen ezetz baina orain eskubaloian jolastu nahi duela. Horrekin, egindako guztiak kontseptatzen du.

**N. Aste honek Usurbilgo eskubaloian oraina eta geroa marka dezake?**

**N. A.** Begira zenbat urteko historia duen eskubaloiak Usurbilen. Behin ere ez da hau gertatu. Zortzi onenen artean



ANE PEREZ LAGUNTZAILEA ETA NEREA AGUDO ENTRENATZAILEA, ASTELEHENEAN KIROLDEGIAN ZIREN ENTRENATZEN.

gaude. Lan asko egiten duen jendea badago Usurbilen. Ez dugu Zarautz edo Bera Berara joan behar, hemen ere lortu liteke, lana eginez gero. Posible da. Talde kideak hemen daudenean duten guztia ematen dute. Askok laguntzen digulako, eskerrak eman Rakeli. Baita Ane eta Olatzi ere.



**JOKALARIAK:** Irati Holgado, Garazi Lizaso, Maddalen Cardenas, Ane Gurrutxaga, Aintzane Iribar, Enara Urdangarin, Irene Garcia, Irati Lasarte, Irati Arruti, Eneritz Agirre, Aitziber Barreña, Maider Etxarri, Onintze Kamino, Itziar Irazusta. **PRESTATZAILEA, LAGUNTZAILEAK:** Nerea Agudo, Rakel Ullate, Ane Perez, Lara Montes, Olatz Arregi.

## Azken faseko partidak Zarautzen, kiroldegian

**Maiatzak 6, asteazkena**  
17:45 USURBIL - Elche Ocycso

**Maiatzak 7, osteguna**  
17:00 USURBIL - Dos Hermanas

**Maiatzak 8, ostirala**  
17:00 USURBIL - Porriño

**Maiatzak 9, larunbata**  
Finalerdiak

**Maiatzak 10, igandea**  
Finala



# Oreka Tx, txalaparta bidailagun

“Nömadak Tx” ikuskizuna aurkeztuko dute larunbatean kiroldegian

**O**reka TX taldeko kide Harkaitz Martinez San Vicentek eta Igor Otxoak Nömadak Tx proiektuari ekin zioten 2003an. Garai hartan, ez zuten inondik inora espero sei urte geroago, egitasmoa bira batekin biribiltzeko aukera izango zutenik. Otsailaren amaieran hasi zen bira hori Donostian eta Euskal Herriko hiriburu guztiak bisitatu eta gero, Usurbilen gozatu ahal izango dugu Nömadak Tx ikuskizunarekin. Larunbat honetan Oiardo kiroldegian arituko dira eta sarrerak jada salgai daude, 10 euro alde aurretik, Lizardi dendan.

Oreka Tx taldeko txalapartariak Mongolia, India, Laponia eta Saharan izan dira eta tokian tokiko musikariekin batu dira, txalapartari ekarpen berriak eginez. Lan hori disko batean jaso zen. Ondoren, dokumental itxura hartu zuen Nömadak Tx proiektuak. 20 zinema jaialditan eman dute eta, guztira, 14 sari edo aipamen berezi lortu ditu. Aurten, Nömadak Tx zuzeneko ikuskizun bilakatu da.

## Irudiz lagundutako kontzertua

Ibilbide luze horretan ezagutu dituzten musikarien presentzia bermatzeko, pantaila handi bat erabiliko dute Oiardo kiroldegian: “agertokiko pantaila, mundura irekitako leiho erraldoi



HERRIALDE ASKO BISITATU DITUZTE ETA TOKIAN TOKIKO MUSIKARIEKIN BATU DIRA, TXALAPARTARI EKARPEN BERRIAK EGINEZ.

bihurtuko da, eta leiho horretan agertuko dira hainbat musikari”, azaldu zuen Nömadak Tx biraren aurkezpenean Harkaitz Martinez San Vicentek.

## Saio amaieran, oroigarri banaketa

Oreka Tx taldeak larunbat honetan eskainiko duen ikuskizunean, “Ez Dok Amairu” taldeko bi kide izango dituzte gogoan: Mikel Laboa eta Jean Paul Harreguy usurbildarra. Biak, azken urtean zenduak. Ez Dok Amairuko kide izan ziren biak eta euren alargunek oroigarri bana jasoko dute.

## Bi sarrera lortu nahi?

**G**aldera honen erantzuna Gasmaten dutenen artean, bi sarrera zozketatuko ditu NOAUA!k. Hau da galdera: **nork zuzendu zuen “Nömadak Tx” dokumentala?**

Erantzun egokia NOAUA!ko bulegora ekarri edo e-postaz bidali elkarte@noaua.com helbidera.

Zozketa maiatzaren 8an egingo dugu eta emaitza [www.noaua.com](http://www.noaua.com) helbidean emango dugu aditzera.

# Jexux Artzeren omenez

## MAIATZAK 8 OSTIRALA

“110. Street-eko geltokia” antzezlan, Goaz antzerki taldearen eskutik.

Izen bereko Iñaki Zabaleta Urkiolaren nobelatik moldatua.

22:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin, 5 euro alde aurretik; 6 euro egun berean.

## MAIATZAK 9 LARUNBATA

Euskal Kantu Taldea kantari. 19:00etatik 21:00etara kalez kale.

## MAIATZAK 9 LARUNBATA

“Nömadak TX zuzenean”. 22:30ean Oiardo kiroldegian. Sarrerak Lizardin, 10 euro alde aurretik; 12 euro egun berean.

## MAIATZAK 15 OSTIRALA

“Egusentziaren esku izoztuak” poema irakurketa. Xabier Leteren irakurketa saioa, Joxan Goikoetxea musikariak lagunduta. 20:00etan Sutegin.

Sarrerak Lizardin doan jaso daitezke, baina gehienez bi sarrera pertsonako.

# Anbulatorioko mediku berriak ez du zertan euskaraz ondo jakin behar

UEMAk proposatuta, Osakidetzaren aurkako mozioa onartu du Udalak

**B**ai, ondo irakurri duzu. Anbulatorioko mediku berriak ez du euskaraz ondo jakin beharko. Osakidetzak hala uste du behintzat. Azken lan deialdian, ez du bermatu Usurbilgo anbulatorioan lanean hasiko den familia mediku berriak tratua euskaraz emateko gai izango denik. Osakidetzak atzerapauso handia eman duela salatu du Udalak, eta dei egin die herritarrei osasun zerbitzua euskaraz eskatzeko.

UEMAk proposatuta, Usurbilgo Udalak Osakidetzaren azken lanpostu deialdiaren aurkako mozioa onartu du. Izan ere, Osakidetzak ez du bermatu Usurbilgo anbulatorioan lanean hasiko den familia mediku berriak tratua euskaraz emateko gai izango denik. Familia mediku berriak euskararekin duen betekizun bakarra izango da datorren urtearen amaieran 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatzea; hau da, ahoz nolabaiteko ulermen maila edukitzea. Beraz, ordura arte ez du euskararik jakin behar izango.

**Beste herri batzuetan ere eman daiteke antzeko kasurik**  
Mozioaren bidez, Udalak Osakidetzari eta EAEko hizkuntz politikaren arduradunei gogorarazi diete udalerrri eta eskualde euskaldunetan osasun zerbitzua ematen duten langile guztiak euskaldunak izan behar dutela, eta eskatu diete eskura



BETEKIZUN BAKARRA, DATORREN URTE AMAIERAN 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA EGIAZTATZEA IZANGO DA; ORDURA ARTE EZ DU EUSKARAZ JAKIN BEHAR IZANGO.

dituzten neurriak har ditzatela hori betetzeko. Izan ere, Usurbilez gain, asko dira euskara jakin gabe lanean hasiko diren langileak: Behatokiaren datuen arabera, udalerrri euskaldunetan bakarrik, 21 mediku, 13 erizain eta bestelako 5 langile.

## Euskaldunen eskubideak errespetatu

Mozioa UEMAko dozena bat udalek onartu dute dagoeneko, eta gainerakoetan maiatzean aztertuko dute. Nolanahi ere, mozioaz gain, UEMAko udalek beste neurri batzuk ere hartu dituzte. Batetik, Osakidetzako arduradunei, EAEkoei eta eskualdekoei, gutun bidez eskatu diete herri euskaldunetako euskaldunen hizkuntz eskubideak errespetatu

dituzten, eta osasun zerbitzua euskaraz emateko neurriak har ditzaten. Bestetik, dei egingo die euskaldunei euskaldun koherente gisa joka dezaten eta euskaldunen aurkako hizkuntza politika beren egunerokotasunean sala dezaten, bai osasun zentroetan erreklamazioak jarriz, bai salaketak Behatokira bideratuz.

## Salaketak nola bideratu

Salaketak Behatokira bideratzeko bideak hauek dira Usurbilen: buzoietan salaketak jartzea (udaletxean, Sutegin, NOAUA!n eta Urbil merkataritza zentroan) edo beste bide hauek erabiltzea:

[www.euskararentelefonoa.com](http://www.euskararentelefonoa.com) web gunea edo Euskararen telefonoa: 902 194 332.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



**Obaba kalea 29 · ASTEASU**

☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

# Jai-egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa jarri da martxan

**U**dalak Santixabeletako jai egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du. Lanak maiatzaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Saria 500 eurokoa izango da.

## Nori zuzendua

Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke.

## Noiz eta non aurkeztu

Lana maiatzaren 29a baino lehenago eraman behar da Usurbilgo Udalera. Hona hemen helbidea:

Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara, Gazteria Zerbitzua  
Jose Martin Sagardia Plaza z.g.  
20170 Usurbil

## Lana nola egin eta nola aurkeztu

Egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

Jaietako egitaraua euskaraz egingo da eta gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letra tamainaren aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio. Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan.

Formatu artistiko guztiak onartuko dira: pintura, akuarela, collagea, argazkiak, digitala...

Lanaren neurria librea izango da.

Erabakia hartzeko orduan, garrantzia handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari.

Lanetan ez da egilearen inolako seinalerik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta telefonozenbakia) gutunazal itxi batean adie-



LANAK MAIATZAREN 29A BAINO LEHEN ENTREGATU BEHAR DIRA UDALETXEAN.

raziko dira. Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

## Epaimahaia

Epaimahaia Santixabeletako Jai Batzordeak berak osatuko du.

## Oharrak

Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.

Lanaren jatorrizko diseinuak inprimatzerakoan aldaketaren bat izan lezake.

Lehiaketara aurkeztutako lanekin Udalak erakusketa bat egin lezake.

Saritutako lana Usurbilgo Udalaren esku geratuko da eta berak izango du inprimatu, argitaratu, zabaldu eta abarretarako eskubidea.

Saritu gabeko lanak 2009ko urriaren 1etik 15era bitartean jaso ahal izango dira Usurbilgo Udalean.

Usurbilgo Udalak ondo zainduko ditu aurkeztutako lanak, baina ez da erantzule egingo lanak osorik ez badaude, batez ere, zurrunik ez diren euskarrietan aurkeztu badira.

Lehiaketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarri hauek onartzea.

Argibide gehiagorako deitu telefono honetara: 943 371999.

## Herritar ugari Jai Batzordearen bileran

**L**ehen bileran, Santixabeletako jai egunak zehaztu ziren, uztailaren 1etik 5era. Aurreko astean egin zen jai batzorde bileran, eguneguneko egitaraua bideratu zuten.

Hurrengo bilera ekainaren 2an izango da, asteartea, arratsaldeko 18:30etik aurrera udalbatza pleno aretoan.





## Aste honetan hasiko dira jaietako danborraden entseguak

**B**i hilabete baino gutxiago falta dira Santixabeletarako, baina batzuk jada ari dira lanean. Danborraden entseguak, esate baterako, dagoeneko zehaztu dira. Aste honetan egingo dira lehen entseguak.

**Umeen danborrada,**  
ostegun honetan izen-ematea  
Izen ematea: maiatzaren 7an osteguna, arratsaldeko 18:00etan, Agerialdeko patioan.

**Lehen entsegua, larunbatean**  
Lehen entsegua: maiatzaren 9an, 11:00etatik 11:45era, Agerialden.

Aurten bost urteko umeak aurrean joango dira eta sei urtetik aurrerakoak jotzen. Antza denez, desfilatzeko garaian nahiz eta danbor txikiak eraman, ez dira gustura ibiltzen. Umeen danborrada uztailaren 2an izango da eguerdiko 12:00etatik aurrera.



UMEEN DANBORRADAKOAK  
LARUNBATEAN EGINGO DUTE LEHEN  
ENTSEGUA.

**Helduen danborradakoak,**  
ostiral honetan lehen entsegua  
Iaz bezala, helduen danborrada jai bezperan ibiliko da, uztailaren 1ean asteazkena. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte lehen saioa egingo dute. Eta gaueko 00:00etan bigarren saioa, txupinazoarekin batera.

Izen ematea eta lehen entsegua: maiatzaren 8an ostirala, arratsaldeko 20:30ean Agerialdeko patioan.

## Jubenilak ere hasi dira Usurbilgo Pilota Txapelketan lehiatzen

**N**agusien mailako txapelketa duela aste batzuk hasi zen baina jubenilen lehia aurreko larunbatean hasi zen. Arruti-Ostolaza herriko bikoteak aise irabazi zuen bere norgehiagoka Donostiako Alde Zaharreko bikotearen aurka.

Gesalaga-Galarraga bikoteak, ordea, galdu egin zuen igandeko partidari: 22-8, Alkizako Mujika-Irurtzun bikotearen aurka.

Asteburu honetako jardunaldia honela osatuko da:

**MAIATZAK 9 LARUNBATA**  
**GOIZEKO 10:30EAN, USURBIL**  
**JUBENILAK**

Azelus-Bereziartua/ Puerta-Etxeberria  
(LAZKAO) (IGELDO)

### NAGUSIAK

Abaskal-Berroeta / Santxo-Txapartegi  
(ZARAMAGA) (USURBIL)

Narbate-Arraztoa / Artano-Aldazabal  
(BIDEGOIEN) (LOIOLA)

**MAIATZAK 10 IGANDEA**  
**GOIZEKO 10:30EAN, USURBIL**  
**JUBENILAK**

Irastorza-Etxeberria/ Rituerto-Bengoa  
(ANDOAIN) (ZARAMAGA)

### NAGUSIAK

Irazusta-Galarraga / Esnaola-Urruzola  
(ORIO) (USURBIL)

Vicente-Iparragirre/Goikoetxea-Mendia  
(LEITZA) (BEASAIN)

### Aitzaga Mus

#### Txapelketa, ostiral honetan Peña Pagolan

**A**itzaga Mus Txapelketa azken Aurreko jardunaldira iritsi da. Ostiral honetan, maiatzak 8, gaueko 22:00etan hasiko dira mus partidak. Honakoan, Peña Pagola elkartearen jokatu dira. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

#### Lau sari nagusi jokoan

Aitzaga Mus Txapelketa abenduan hasi zen. Zazpi jardunaldiz osatzen da eta hilean behin jokatzen dira mus partidak; hilabete bakoitzean elkarte ezberdin batean. Ostiral honetan, Peña Pagolan izena ematen dutenek sari hauek izango dituzte eskura: lehenarentzat bi arkume, mariskoa eta txanpaina; bigarrenarentzat, lau koneju, txangurroak eta txanpaina. Hirugarrenarentzat, bi koneju eta txangurroak. Laugarrenarentzat, bi koneju eta txangurroak.

### Txirindulari lasterketa

#### Zumartegin

**L**arunbat honetan, maiatzak 9, Arratsaldeko 16:00etatik aurrera txirindulari lasterketa izango da Zumartegin. Gazte mailako proba izango da eta jokoan, Gipuzkoako Txapelketa. Buruntzazpi Txirindulari Eskolak antolatu du lasterketa.

### Herri Arteko Pilota

#### Txapelketa, gauez

**A**pirilaren 30ean, Azkoitian jokatuko dira Usurbil eta Azkoitiaren arteko kanporaketaren joaneko partidak. Kadete eta nagusien mailan, jaun eta jabe izan ziren azkoitiarrak. Jubeniletan, aldiz, Xabi Santxo eta Josu Ostolaza nagusitu ziren. Itzulerako partidak, ostiral honetan jokatuko dira Usurbilen, gaueko 22:00etatik aurrera. Kadeteen artean egongo da aldaketa bakarra, Julen Ulik jokatuko baitu.

# Autobus Orduetgia

### Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia	
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30	
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00	
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30	
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00	
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30	
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10	
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30	
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.10	12.30	12.35	12.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30	
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30	
13.10	13.30	13.35	13.45			13.30	13.40	13.45	14.10	
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.45	13.55	14.05	>>	14.30	
14.10	14.30	14.35	14.45			14.30	14.40	14.45	15.10	
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30	
15.10	15.30	15.35	15.45			15.30	15.40	15.45	16.10	
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30	
16.40	>>	17.05	17.15	17.25		16.30	16.40	16.45	17.10	
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30	
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30	
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30	
19.10	19.30	19.35	19.45			19.30	19.40	19.45	20.10	
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30	
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30	
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00	
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05						

### Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00*	08.20*	08.25*	08.35*	08.45*	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

#### LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00*	>>	01.25*	01.35*	01.45*
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00*	>>	05.25*	05.35*	05.45*
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

#### LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15*	00.25*	00.35*	>>	01.00*
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15*	02.25*	02.35*	>>	03.00*
03.15*	03.25*	03.35*	>>	04.00*
04.15*	04.25*	04.35*	>>	05.00*
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

\* Usurbilen, soilik eguerdira arte

### Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 7, osteguna  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Maiatzak 8, ostirala  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Maiatzak 9, larunbata  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil \*

Maiatzak 10, igandea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Maiatzak 11, astelehena  
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Maiatzak 12, asteartea  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Maiatzak 13, asteazkena  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 14, osteguna  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 15, ostirala  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Maiatzak 16, larunbata  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte  
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

Maiatzak 17, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietta  
kalea, 7 Hernani 943 552 941

\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

### Laster jarriko da martxan

#### Urnieta-Usurbil

#### autobus zerbitzua

Apirilaren 28an Arantza Tapia foru diputatuak adierazi zuenez, maiatzean jarriko da martxan Urnieta eta Usurbil arteko bus zerbitzu berria. Urnietatik Lasarterako errepidea nola-koa den kontuan izanik, froga moduan autobus txiki bat jarriko dute lehenik. Ondorengo ibilbidea izango du: Urnieta-Lasarte-Zubieta-Usurbil. Zerbitzu honekin batera beste zerbitzu bat jarriko da martxan: Astigarraga-Hernani-Lasarte-Usurbil. Inguruko obra guztiak amaitu (Donostiako ingurabide berria barne) eta gero, bi linea horiek batzea aurrekusi da.

#### Ordutegi aldaketa trenean

EuskoTrenek bi minututan aurreratu du Usurbildik Oriora doan tren zerbitzua. Dagoeneko gaurkotu ditugu orrialde honetako ordutegiak.

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.01	06.11	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.31	06.41	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.01	07.11	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.31	07.41	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.01	08.11	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.31	08.41	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.01	09.11	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.01	10.11	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.01	11.11	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.01	12.11	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.31	12.41	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.01	13.11	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.31	13.41	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.01	14.11	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	* 14.17	14.31	14.41	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.01	15.11	15.20
* 15.38	15.45	15.54	16.09	* 15.17	15.31	15.41	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.01	16.11	16.20
* 16.38	16.45	16.54	17.09	* 16.17	16.31	16.41	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.01	17.11	17.20
* 17.38	17.45	17.54	18.09	* 17.17	17.31	17.41	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.01	18.11	18.20
* 18.38	18.45	18.54	19.09	* 18.17	18.31	18.41	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.01	19.11	19.20
* 19.38	19.45	19.54	20.09	* 19.17	19.31	19.41	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.01	20.11	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.01	21.11	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.01	22.11	22.20
22.40	22.46	22.55	23.10				

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGAN  
\* Astegunetan eta Udako (09/06/22-09/09/14) larunbat, igande eta Jaiegunetan  
Bezereoren arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

# Tren Orduetgia

## Agenda !

**Maiatzak 6 asteazkena**  
Kultura Aholku Batzordea. 19:00etan udal aretoan.

**Maiatzak 8 ostirala**  
- Antzerkia: "110. Street-eko geltokia".  
22:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin, 5 euro aldeztatik; 6 euro egun berean.

**Maiatzak 9 larunbata**  
- Kantu-jira, 19:00-21:00, frontoitik abiatuta.

- Preso bat, egunkari bat. Herri bazkaria Dema plazan. Txartelak 23 eurotan Txiriboga salgai.

- Nömadak Tx kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak aldeztatik Lizardin, 10 euro. Egun berean 12 euro.

**Maiatzak 12 asteartea**  
Hitzaldia: "Komunikazioa eta giza balibideak", 16:00etan Artzabalgo egoitzan. Hizlaria, Ana Agirre. Sarrera, doan.

**Maiatzak 15 ostirala**  
"Egusentziaren esku izoztuak", Xabier Leteren azken liburuko poemak irakurketara Joxan Goikoetxearen musikaz lagunduta. Sarrerak Lizardin jaso daitezke doan (gehienez bi sarrera pertsonako). 20:00etan Sutegin.

**Maiatzak 16 larunbata**  
Hitzaldia: "1620. Nafarroa Frantziarekin bat", 12:00etan Sutegin. Hizlaria, Jean Louis Davant.

**Maiatzak 18 astelehena**  
Hitzaldia, "Las Karlistadas". 19:00etan Sutegin. Hizlaria: Mikel Soraren.

**Maiatzak 24 igandea**  
XXVIII. Sagardo Eguna.

## Larunbat honetan Dema plazan, presoen aldeko herri bazkaria

**P**reso bat, egunkari bat lemapean, Dema plazan harpidetza sustatzeko herri bazkaria egingo da larunbat honetan, maiatzaren 9an. Bazkaria eguerdiko 14:00ean izango da eta parte hartzen dutenek honako menua dastatuko dute: ajoarrieroa, kostilla eta sagar pudina.

**Bazkalostean,**  
**Agurtzaneri ongi etorria**  
Bazkarirako txartelak Txiriboga tabernan egongo dira salgai 23 euroren truke.

Bazkariaren ondoren, Agurtzane Solabarrieta herritarrari ongi-etorri harrera egingo zaio. Urtarrilean atxilotu zuten baina martxoaren 25ean kaleratu zuten.



BAZKARIRAKO TXARTELAK  
TXIRIBOGA TABERNAN DAUDE  
SALGAI, 23 EUROREN TRUKE.

### Davanten hitzaldia, astelehenean izan ordez, maiatzaren 16an

**N**afarroa Frantziarekin bat egingo du Jean Louis Davant adi-tuak. Hasiera batean, astelehenerako iragarrita zegoen Davanten hitzaldia. Baina astelehenean ezin- go da egin eta maiatzaren 16a arte atzeratu da Davanten hitzaldia.

Nabarralde, Nafartarrak taldeak eta Usurbilgo Udalak "Independentziaren historia" izena duen ikastaroari esker hurbilduko da Sutegira. Hitzaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da.

### Bruñoko mariskada, sari moduan

**E**skubaloi taldeek egin ohi duten zozketan Txamunto izan da sariduna. Bruñoko mariskada eder bat eskuratu du, 980 zenbakidun errifa zuen zortedunak.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete errifak erosi eta zozketan parte hartzen duten guztiei.



**URDAINTZI S.L.**  
gaitzuntza

943 362 725  
943 362 725  
943 362 725

  
ARRAINDEGIA  
**PELLO**

 Puntapax Kalea,7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL 

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725



## ETXEBIZITZA

- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuenea etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukalde eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m<sup>2</sup> - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m<sup>2</sup>), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Peugeot 307-SW familiarra 2003 urtekoa eta beis kolorekoa. 637894997.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karra-tuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 14800Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.

- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 euro-tan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m<sup>2</sup>. Oso merke. 657 700 408.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m<sup>2</sup>-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia ondoan) 14 metro karratu-ko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Antxeta tabernan zerbitzari bat behar da astelehentik ostiralera aritzeko. 943370344.

## Lan-eskaintzak

- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakume adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeak ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna.

- Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zain pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartetan arratsaldeko 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.
- Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut frontoi inguruan. Beltzak dira, monturarik gabeak eta Armani markakoak. 943373117
- Teckel txakurkumeak salgai, oso politak, standard tamaina, ile gogorrekoak.. Tel: 636 39 32 37
- Bordatxo ondoko errotondan, ume baten kaki koloreko txamarra bat galdu da. Barruan kartera dauka. Aurkitu duenak deitu 943364733.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Katu txuri beltz bat galdu da Intxaurreta (Aginaga) inguruan. 609 928 387.
- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
- Urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasozten ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskal-net.net



**Zorionak Unai!**  
Maiatzaren 9an  
gingo dituzu 7  
urte. Muxu handi  
bat eta besarkada  
bero bat familiko-  
en partez. Ondo pasa!



**Zorionak Ugaitz!**  
Zorionak  
bigarren urtez  
Urruzuno saria  
irabazteagatik.

Bidai on!! Etxekoak.



**Asier eta Iratxe!** Zenbat urte  
gingo dituzue maiatzaren 10ean?  
Puf, auskalo! Muxu bana Josune,  
Oskar, Malen, Olatz, Xabi, Zalao,  
Txingu eta Patxiren partez. A, ta  
igandean bokata zuen kontura  
ee!!!



**Zorionak bikote!**  
Maiatzaren 12an  
eta 16an urteak  
gingo dituzue.  
Ondo pasa eta  
muxu handi bat  
famiaren partez.



**Zorionak Arkaitz!**  
11 urte egin behar  
dituzu maiatzaren  
7an. Muxu handi  
bat Aginagako  
eskolako en partez.



**Zorionak printzesa!**  
Dagoeneko sei urte  
bete dituzu maiatza-  
ren 7an. Primeran  
pasa eta txokolata  
eta marrubizko  
muxuak.

# LURRALDEBUSeko istorioak

LURRALDEBUS

María, 68 urte

"Hirugarren adinekoentzako  
moaxora festa batetik dator."

Jatorria: Donostia Antiguoa  
Norakoa: Hernani

Arantxa, 71 urte

"Marik hartzen duen autobus  
linea bere hartu ohi du  
Bereizetarako egin dira."

Jatorria: Donostia Antiguoa  
Norakoa: Hernani

[www.lurraldebusekoistorioak.com](http://www.lurraldebusekoistorioak.com)



GIPUZKOA

zurekin, aurrera»



# osasun gida

## Farmazia



Iturralde  
botika

Tomas Iturralde botika  
R.P.S. Nº 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopaticoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

## Fisioterapia



FISIOTERAPIA ZENTROA

Ibaiondo

Fisioterapia  
Osteopatia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

## Masajista



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197  
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

## Optika



USURBIL  
OPTIKA

Entzumeneko aparatuek • Igeriekuko tapoiak neurrira eginda  
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

## Hortz klinika

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL